

## ORONAKo Get UP sarien III. edizioaren deialdia

2012/06/19

Datorren uztailaren 1ean irekiko da ORONAKo Get Up sarien III. ediziora lanak aurkezteko epea. Karrera amaierako proiektu hauek igogailu sistemen, hiriko mugikortasunaren eta eraikinen kudeaketa energetikoaren ingurukoak izan behar dira eta 2012-2013 ikasturtean euren ikasketak bukatuko dituzten Mondragon Unibertsitateko ikasleei daude zuzenduta.

ORONAK unibertsitateko ikasketak amaitzen dituzten gazteak ikerkuntzara bultzatzeko sortu ditu sari hauek. Ikertzea xede duten eta, aldi berean, garraio bertikalaren, hiriko mugikortasunaren eta eraikinen kudeaketa energetikoaren arloan berrikuntzak aurkezten dituzten proiektuak saritzen ditu sariak.

